

JORGE SOTO DONOSTIAKO POLIKLINIKAKO DERMATOLOGIA SAILEKO BURUA ETA EHU-KO KATEDRADUNA

«Herrialde garatuetan lepradunak baleude, txertoa garatuta egongo litzateke»

Izen handiko dermatologoa da Jorge Soto, Euskal Herriko aditurik nagusietakoa; azaleko eritasunen aurkako tratamendu berrien inguruan nazioarteko enpresa farmazeutiko handien jarrera gogor salatzen du sendagile donostiarrak.

JON URBE / ARGAZKI PRESS

**ARDURA**

«Jendea asko arduratzen da azaleko gaien inguruan. Hala ere, jendea beti arduratu da bere itxuragatik, arazoei aurre egiteko irtenbideak bilatuz»

SENDAGAIK

«Argi izan behar dugu herrialde pobreetako hainbat gaitzek ez dutela tratamendurik, enpresa farmazeutiko handiei interesatzen ez zaielako»

Gorka Quevedo | DONOSTIA

Jorge Soto Donostiako Poliklinikako Dermatologia Saileko burua eta Euskal Herriko Unibertsitateko katedraduna da. Egunotan, azaleko gaitzen inguruko jardunaldi batean parte hartu du. Azaleko arazorik ohikoenen inguruan mintzatu da Soto EGUNKARIArekin. Adeitsu.

■ Zeintzuk dira azaleko arazorik ohikoenak?

Azaleko arazoak bi motatan banatzen ditugu. Batetik, benetako gaixotasunak daude —psoriasis, aknea, tumoreak...—, eta, bestetik, osasunarentzat arriskutsuak ez diren arazoak. Horien artean gizakiaren itxura aldatzen duten arazoak daude. Maiztasunari dagokionez, psoriasis, aknea, azalean gehiegizko ilea, tumore gaiztoak... dira.

■ Jendea azaleko arazoez behar adina arduratzen da?

Bai, jendea asko arduratzen da. Gero eta gehiago gainera. Hala ere, jendea beti arduratu izan da bere itxuragatik. Horrela, giza-

kiak betidanik azaleko arazoei aurre egiteko irtenbideak bilatu ditu. Noski, egungo metodoak gero eta aurreratuagoak dira.

■ Maiz arazoak ez dira larriak, estetikoak baizik.

Lehenik eta behin dermatologo batek arazoa sailkatu behar du. Hots, ikusi ea pertsonaren osasuna arriskuan dagoen ala arazoa soilik estetikoa den. Orban batek edo tumore batek arazoak eragin baditzaie derrigor kendu behar da. Arazoa estetikoa bada, berriz, sendagileak balorazio hau egin behar du: zer irabazten dut eta zer galtzen dut. Horren arabera hartzen da azken erabakia.

■ Zeintzuk dira sendatzeko arazo gehien ematen dituzten azaleko eritasunak?

Medikuntza aurrera doa etengabe. Esaterako, akneak ez digu inolako arazorik ematen, oso tratamendu onak daude. Ekzemek ere oso tratamendu eraginkorrak dituzte. Hala ere, psoriasis guztiz kontrolatzeko arazo ugari ditugu. Melanoma bezalako tumore gaiztoen inguruan asko gelditzen da oraindik ikeritzeko. Hala ere, kontuan hartu behar da herrialde pobreetako hainbat gaitzek ez dutela tratamendurik enpresa farmazeutiko handiei interesatzen ez zaielako.

■ Hortaz, gaur egun soilik etekin ekonomikoak ematen dituzten gaitzen inguruan ikertzen da.

Gauza bat argi izan behar da. Zientziaren garapena ez da iker-

tzaileen borondatearen arabera mugitzen, enpresa farmazeutikoen interesen arabera baizik. Adibidez, herrialde pobreetako biztanleek dituzten hainbat gaitz arraro oso jende gutxik ikertzen ditu, enpresa farmazeutiko handiek gaitz horietan interesik ez dutelako.

■ Zeintzuk dira gaitz horiek?

Adibidez, Ameriketako Estatu Batuetan paludismoa egongo balitz gaitzak bere horretan jarraituko luke? Ez. Zeintzuk dute gaur egun paludismoa? Afrikako lau beltzek. Leprarekin ere antzeko zer bait gertatzen da. Lepra herrialde aberatsetako gaitza balitz bere aurkako tratamendua aspaldi egongo litzateke garatua. Gisa horretako gaitzen aurkako tratamenduak bi-

latzeko ikerketak ez dira ekonomikoki errentagarriak enpresa farmazeutikoentzat. Hori dela eta, lau ikertzaile txorok bakarrik dihardute munduan gaitz horien kontrako borrokan.

■ Beraz, herrialde aberatsetako eta herrialde pobreetako gaitzak daude?

Bai. Zoritxarrez, hala da. Dena den, hori betidanik gertatu da. Gainera, ez dirudi joera hori aldatuko denik. Soilik herrialde aberatsetako biztanleek euren burua arriskuan ikusten dutenean aldatuko da joera. Esaterako. Noiz hasi ziren hiesa ikertzen? Mendebaldeko herrialdeetan jendea gaitzaren erruz hiltzen hasi zenean. Gaitza afrikarrek soilik izango balute ez zen enpresa farmazeutikoentzat errentagarria izango arazoari irtenbide bat aurkitzea.

■ Hala, paludismoa eta lepra herrialde aberatsetako gaitzak balira tratamendua izango lukete.

Bai, bai. Hemen lepradunak baleude ziur naiz gaitzaren aurkako txertoa garatuta egongo zela.

■ Jende ugari eramatzen ditu piercing eta tatuajeak. Arriskutsuak al dira?

Lehenik eta behin kontuan izan behar dugu gure azalean sartzen diren material arrotz batzuek ari garela hitz egiten. Hori dela eta, infekzioak dira arazorik ohikoenak. Gainera, jende ugari sudurrean, zilborrean edo sexu organoetan egiten ditu piercing-ak. Gorputzeko atal horien higiegi egokia izatea zaila da kasu askotan. Hala ere, material egokiak erabiltzen badira eta profesional batek egiten badizu, piercing-ak ez du zertan arazorik eman behar.

■ Zeintzuk dira azaleko arazoak izateko faktorerik ohikoenak?

Faktore ugari daude. Esaterako, tumore bat izateko alde aurreko joera genetikoak izatea eta gehiegizko eguzkia hartzea dira faktorerik ohikoenak. Hala ere, gehiago daude, esaterako, ingurumenari lotutakoak. Dietak, orokorrean, ez du azaleko arazoei zerikusirik handirik.

■ Azal osasuntsua izateko zein gomendio jarraitu behar dira?

Ordutegiei dagokionez bizitza ordenatu bat eramatea, ez erretzea eta azala hidratatzea. Tabakoak kalte handia egiten dio azalari. Hiru horiek dira oinarriko gomendioak.